

## **ZIRKULATU. Por una Europa abierta.**

### **XVII Martxa: Arrazakeria eta xenofobiaren aurka**

2014ko martxoa, Agiria

Maiatzaren azken aldera egingo dira Europar Parlamenturako hauteskundeak. Orduan aukeratuko den legebiltzar berriak orain artekoek baino eskuduntza gehiago edukiko ditu legegintzarako eta exekutiboa kontrolatzeko.

Geure eguneroko bizimodu sozial zein politikoaren alor guztietan ikusgarritzko eragina duten erabakiak hartzen dira, politikak garatzen dira eta zuzentarauak promulgatzen dira europar erakundeetan: zorrotasun politikak, barne nahiz kanpo mugei buruzkoak, immigrazioari dagozkionak, diskriminazioari aurre egin eta tratu berdintasuna ezartzekoak, eta beste hainbat.

Batez ere Europa hegoaldeko herrialde batzuetan gogortasun apartaz ezarri diren zorrotasun politikek eta ekonomiaren eta gizartearen hainbat alorretan egin diren mozketek, izugarritzko kalteak erakarri dituzte langileentzat: langabezia erraldoia, lan baldintzen okerragotze orokorra eta etengabea, egonkortasunik gabeko langintzaren zabalpena, soldatak murriztea, pentsioak gutxitzea, osasungintzako murrizketak, pobrezia egoeren hazkundera, gizarte laguntzako erakundeetara jo beharrean aurkitzen den jendearen ugaltzea eta, oro har, gizarte ezberdintasunen sakontzea eta handitzea.

Europar Batasunaren zuzendariak eta hura osatzen duten Estatuaren arduradunek bultzaturiko politikek islatu duten eszenategi horren barnean, gero eta nabariagoa eta sakonagoa da eskuin muturreko korrente populisten presentzia, hau da, milaka eta milaka pertsonak bizi dituzten zailtasun ekonomikoetan oinarrituz jende langile etorkinen aurka berariazko etsaitasuna aldarrikatzen dutenak, eta xenofobia eta arrazakeria ereiten dutenak, besteak beste.

Alderdi politiko hauek, Batasuneko hainbat herrialdeetan, kidetasun esparru zabalak dituzte eskuin kontserbadore eta liberaletako partiduekin, bizimodu sozial eta politikoaren alor askotan (lanbidean, etxebizitzan, fiskalitatean, osasungintzan, gizarte laguntzetan, boto eskubidean...) etorkinak legalki diskriminatzeko proposamenak egiten ari dira, ekonomia doitzeko betekizun horren baitan bertako langilearen mesederako izango omen litzatekeelako. Bertakoen lehentasunaren politika deitzen zaio Europako legerietan gizabanako guztien legezko berdintasuna eta trataera berdina ezartzen duten arauak ezabatu nahi dituen joera diskriminatzaile eta autoritario honi.

Iruzur ikaragarria da hori. Eskakizun guztiz antidemokratikoa da eta, gainera, arestian aipatu ditugun gizarte arazo horiek ez ditu konponbideratzen ezberdina izatea, beste herrialde batean jaioa izatea edota langile etorkina izatea lege mailako ezberdintasun bilakatzeak; ezta beren jatorri nazionalaren edota nortasun etniko edo erlijiosoa arabera gizakien diskriminazioa legezkoa bihurtzeak ere.

Era berean guztiz antidemokratikoa da hegoaldeetik Europara sartzen ahalegintzen diren migrazio fluxuen kudeaketa politiketarako gerragintzako ikuspegi militarrek erabiltzea, edota Melillara eta Lampedusara heltzen diren etorkinak errudun aitortuak balira bezala tratatzea. Bidean, guztiz antidemokratikoak dira Europako zenbait gobernu

kontserbadorek aldarrikatu berri dituzten proposamenak, Europar Batasunaren barnean Batasuneko hainbat herritarri, diren lekukoak direlako, mugitzeko askatasuna mugatzea suposatuko luketenak.

Behar-beharrezkoa iruditzen zaigu horrelako proposamenak gaitzestea, bai eskuin muturreko neopopulistek ereindakoak direnean eta baita ere korrente horiekin adiskidetu nahi duten partidu edota gobernuek eragindakoak direnean. Ezin dugu ontzat eman hitzez behintzat balio demokratikoak lehenesten dituen Europar Batasunean, hau da, berau osatzen duten estatueta edozeinetan, nazio lehentasunezko politikak indarrean ipintzea, haietan bizi diren hainbat herritarrentzat diskriminatzaileak direnak, ezberdinak omen direlako. Horrelako politikak beldurrean eta ordenarekiko miresmenean oinarritzen dira, justiziari, askatasunari eta solidaritateari muzin eginez. Eta xenofobia eta arrazakeria indartzen dute. Egin diezaiegun uko.